

36ko Gerra. Uztaileko kronika

Santoña

gudarien azken geltokia

Ez da gai eroso gudari izandakoentzat, ezta Eusko Jaurlaritzaren buruzagientzat ere. Urte askoan gai tabua izan zuten, batzuek eta besteek, Laredo eta Santoña arteko padura nahiz hondartzetan gertaturiko errendizioa. Zergatik baina? Aldez aurretik italiarrekin izandako hartu-emanak, Errepublikaren aldeko kideei bizkarra emanez burutu zituztelako, eta frankistek italiarren txanda hartu zutenean ankerkeriaz jokatu zituelako.

JOSU CHUECA

Arzue
Zabala
Ibarbia
Markiegi
Markaida
Oñazendi

G. B.

Santoñan, italiarrek frankisten esku utzi zituzten presoak, eta fusilatzeak laster hasi ziren. Irudian, El Duesoko kartzelan egindako marrazkia. Fusilaturiko hainbat buruzagiren izenak agertzen dira bertan.



ESPETXEAN, 1937-1942

El Duesoko (Santoña, Kantabria) kartzelako bi irudi.
Goian, irudi zaharra, gerra garaian-edo hartua.
Beheran, gaur egungo irudia. Hondartzak bere horretan
segitzen du kartzela parean; hor fusilatu zituzten
Santoñan preso hartutako gudari ugari.



BILBO GALDU ZENETIK Santoñako errendiziora arte bi hilabete luze igaro ziren. Nahikoa denbora Bizkaitik ateratako batailoiak berrosatzeko, eta baita hauek Iparreko Armadaren barruan kokatzeko ere. Madrilgo frontean, errepublikanoek Bruneteko borrokaldia hasi zuten, eta ondorioz frankistek bertan behera utzi behar izan zuten penintsula iparraldeko eraso, aurreko hilabeteetan Madril inguruan bereganatu zituzten posizioei eusteko. Baina uztailearen erdialdean Bruneteko eginahala amaituta, berriro iparrean jarri zuen Francok bere armadaren jomuga. Uda amaitu baino lehen nahi zuen akabatu Kantabriari eta Asturiasen zeuden fronteeekin, jakinik, negua iritsiz gero, eskualde horietan zeuden mendeak igaro ezinak izango zirela.

Bruneteko erasoaldiak emandako arnasa aprobetxatuz, Mariano Gamir Ulibarrik Iparreko Armada berrantolatu zuen hiru multzotan: XIV.a izeneko multzoan euskal armadan ibilitako batailoiak sailkatu zituen, XV.ean Santanderekoak eta XVI.ean Asturiaskoak. Guztira 120.000 lagun inguru mobilizaturik.

Politikari dagokionez, Santander eta Asturiasko defentsa batzordeei Euskaditik alde egindako Eusko Jaurlaritza gehitu zitzairen. Kontseilari batzuk –Nardiz, Leizaola, Gracia...– ebakutze kontuez arduratu ziren bitartean, Monzon eta De la Torre Santanderren geratu ziren Agirre lehendakariarekin batera, hiriburu hori frankisten esku erortzeaz egon zen arte. Dena den, politikari horien eraginak ez zuen zerikusirik Bizkaian izan zutenarekin. Eusko Jaurlaritza oso ahulduta zegoen politikoki eta agintari militarrek agerturiko irizpide guztiak onartu behar izan zituen. Erabat alferrikakoak izan ziren, esate baterako, Agirrek Azañarekin, Prietorekin, Negrinekin eta Yvon Delbosekin izandako elkarriketak, itsasoz

eta Frantzia barrena gudariak Kataluniara eramateko asmoaren inguruan. Buruzagi horiek guztiek Agirreren ekimena berehala baztertu zuten eta lehendakaria esku hutsik bueltatu zen Santander aldera. Ildo beretik, eta Santanderren aurkako erasoaldia gori-gori zegoela, arras esanguratsua izan zen Agirrek berak agintari politiko eta militarrekin egindako goi-mailako bilera baten ostean esandakoa: militarrei men egitea besterik ez zela geratzen, alegia.

Egoera zailean, soka luzeko hartu-emanak

Testuinguru horretan uler daiteke EAJko Euzkadi Buru Batzarreko arduradunek sustatu zuten bide negoziatzailea, Santoñako kapitulazioan amaitu zena. Gerra hasieran hainbat negoziazio saio izan ziren, baina guztiek porrot egin zuten. Aitzitik, Bizkaiaaren aurkako erasoaldi betean, EAJko buruek egokitzen jo zuten Italiako diplomatikoen bitartez bake-errendizioaren bidea aztertzea. Negoziazio hori Pantaleon Ruiz de Olano eta Alberto Onaindiaren eskutan jarri zuen EBBko burua zen Doroteo Ziaurrirek –Onaindiak lehenagotik kontaktuak izanak zituen Donostian Italiako kontsula zen Cavallettirekin–. Bide berean jarri zuen Ziaurrirek Juan Ajuriagerra, agintari militar italiarrekin hitz egin zezan. Horrela, Bilbo erori baino lehen hasi ziren hartu-emanak, baina uztailez geroztik areagotu egin ziren nabarmen.

Ordurako euskal armadaren egoera ez zen batera egoia borrokan jarraitzeko. Izan ere, lehenengo Bilbon eta Barakaldon geroxeago, batailoi zenbaitek amore eman eta gatibu geratu ziren. Beste batzuk, giza galera dezenterekin, Karrantza eta Muskiz atzean lagata sartu ziren Kantabriari, eta Iparreko Armadan izandako berregituratzeak harrapatu zituen. Ondorioz, hainbat batailoitako

Ulergarria egiten zaigu Agirrek euskal
armadako gudariak itsasoz ateratzeko
egindako proposamena. Baina asmo horiek
hutsalak izan zirenean, borrokaren ala
errenditze negoziatuaren arteko aukera
besterik ez zitzairen geratu

Literaturaren argitan

Joseba Tapia, *Agur Intxorta maite. 1936-37 Gudako kantuak* (2001, Gaztelupeko Hotsak)

Lehen hamar lagun ginen etxean



*"Eibar aldetik irten genduan / antzintziketan
Deustura / Deustutik berriz estu ta larri /
Joan ginan Cabezón-era / Cabezondikan Borin-
es-era, Borinestikan Nava-ra Navatik berriz
Candas-era ta / sartu gintuzten barrura"*

Pepe Bolunburu

Sail honi akabera eman beharra, eta aipatu ez ditugunak oroitu. Musika-karena dugu hutsune nabariaren. *Agur Intxorta maite* musika lan hone-tan, Joseba Tapiak, Koldo Izagirreraren laguntzaz, gerra garaiko kronika egin zigun *Agur Intxorta maite* lan honetan, gehienetan lubakien ikus-puntutik egina. Bide ertzean taldekoek familiaren hainbat gertakarieta-tik abiatutik *Non dira?* izeneko lana plazaratu zuten pasa den urtean, eta Igorre aldean ere, gerra garaiko kanten bilduma eskaini ziguten aurreko udazkenean. Ez da kantena hutsune bakarra, ziur aski ez diogu

Auspoa sailari merezi bezain beste erreparatu, zapiraindarrak ekarri ez izana lekuko.

Testu honen izenburua, Joxe Zapirainen bertso batetik moldatu dugu (*Len amar lagun giñan etxean*, 1937) eta gerraren kronika biluzi eta ankerra dakarkigu. Bertsoan aipatu semeetako bat Salvador Zapi-rain, *Ataño* duzue, Ezkaba mendiko San Cristobalen espetxeraturik izan zena, Auspoa sailean *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpean* utzi zizki-guna. Inoiz esan dugu, gerra garaiko kronikena lan monografiko baten aiduru dela.

Bidea ez zen Santoñan amaitu, gerrak iraun zuen erbestean, gerra II. Mundu Gerraren ataria izan zen, zoritxarrak berdindu gintuen. 1936-1945 garai historikoak gure literaturan duen oihartzuna alimalekoa da, *Anbroxio*, *Batita Haundia*, *Tigre ehizan*, *Hodei Berdeak*, *Azken fusila*, *Soinujolearen semea*, *Arotzaren eskuak*, *Igari-Bidankozekoak*...

Patxi Larrión

gudariak beste talde batzuetan sakabanatu ziren, eta Eusko Gudarostea desegintzat jo zen, Ipar Armadako XIV. erakun-dean integraturik.

Bestalde, Bilbo galtzearen gainean eztabaida latzak sortu ziren. Batetik, Jesus Larrañaga buruzagi komunistak salaketa zuzenak egin zituen Eusko Jaurla-ritzak Bizkaiko azken egunetan eramandako politikaren aurka. Beste-tik, aginte errepublikanoak kritika gogorrrak jaso zituen Ipar fronteari ez laguntzea leporatuta. Abiazioan izandako gabezia erabakiorra izan zen euskal lurra galtzeko, eta askok ez zuten gogorik Euskaditik kanpo borrokan jarraitzeko. Gainera, senti-mendu hori ez zen abertzaleetara mugatzen. Hilabetetan metaturiko nekea antzeman zitekeen miliziano askorengan ere; jota zeuden, eta ordurarte izandako baldintzekin gerrari aurre egiteko gogo gutxi zuten gehienek. Uztailaren bukaera-ko azken erasoan –Balmasedako Kolitzako baseliza berreskuratzeko egina–, beste porrot bat jasan zuten errepublikaren aldekoek, eta borroka hartan ikusi zuten atzerantz egin edo ebakuatzea baino ez zitzaizela geratzen.

Horrenbestez, ulergarriagoa egiten zaigu Agi-rrek euskal armadako gudariak itsasoz ateratze-ko egindako proposamena. Baina asmo horiek hutsalak izan zirenean, borrokaren ala errenditze negoziatuaren arteko aukera besterik ez zitzairen geratu. Egoera hil ala bizikoa bihurtu zen altxa-tuek Bruneteko eraso geldiarazi ostean. Madril-go frontea kontrolpean zutela, abuztuaren 14an



Espetxeen izeneko aldizkaria, eskuz idatzia. Lehenengo alea El Duesoko kartzelan agertu zen, 1937ko urrian.

frankistek Kantabriaren aurka egin zuten berriz ere indar handiz. Azkar oso, bi egunen buruan zanpatu zuten nazionalak Reinosa, eta ondorioz Asturiasekin errepublikanoek zuten lotura arris-ku bizian jarri zuten. Oldarkeria horren aurrean, agintari errepublikarren artean jarrera ezberdi-nak azaldu ziren: defentsa esparrua estutuz Santanderri eustea sostengatzen zuten batzuek; beste batzuek, hori ezinez-koa zelakoan, Asturias aldera atze-rantz egitea jotzen zuten egokia.

Santoñako hitzarmena

Abagune zail horretan, Juan Ajuriagerra jeltzaleak elkarrizketak burutu zituen “Manzini” izengoitia erabiltzen zuen Mario Roatta jeneral italiarrarekin. Elka-rrizketa horien ondorioz, honako hitzar-menetara iritsi ziren: eusko gudariak ez zuten erresistentziarik egingen eta Italiako legionarioei Santoña-Laredo eskualdeaz jabetzen utziko zieten. Era berean, italiarrak ordena publikoaz arduratuko ziren eremu horretan eta atxilotuen bizitza bermatuko zuten. Horren truke, Italiako ordezkari milita-rrek errendituriko soldadu guztien bizitzaz arduratuko zirela eta agintariak erbestera joate-ko baimena izanen zutela hitzartu zuten. Eta errendizio horretan harrapaturiko eusko guda-riak gerrako eginbehar guztietatik landa lagatu-ko zituztela ere agindu zuten faxistek. Hitz-e-mandakoa gauatzeko abuztuaren 24ko azken ordurarte barkuak Santoñako portura sartu ahal izango ziren, biztanleria zibila eta lehen aipaturi-ko buruzagi politiko zein militarrek erbestera-tzeko.

Horrela, negoziazio horretan adostutakoari helduz, batailo nazionalistek Santoñara eta Laredora jo zuten. Bizkaiko mugetan zeudenak



ESPETXEAN, 1937-1942



ESPETXEAN, 1937-1942

aise burutu zuten mugimendu hori, baina hegoaldeko mendateetan zeudenak, nabarmenago utzi zituzten beraien lerroak. Hori dela-eta, batailo nazionalistak burutzen ari ziren manio-bra bitxi horren berri berehala izan zuten agintari errepublikarrek. Bistan zegoen: ez ziren defentsan ari, ezta Asturias aldera mugitzen ere. Armada barruko matxinada antzekoa izan zen eta EBBkoek babestua gainera. Izan ere, tropa mugimendu horiek bideratzeko, EBBkoek beraien konfidantzazko gudari buruak jarri zituzten gelditze esparrutan: itsas aldetik Pontarronera, Sabin Apraiz; Karrantzaraino, Jose Salegi; eta azken gune horretatik Solaresera, Emilio Uriarte. Era berean, Laredora eta Santoñara batailoiek burutu behar zuten atzeraldia antolatzeaz Alejo Artaza eta Gabriel Arana arduratu ziren.

Bitartean, Juan Ajuriagerra Miarrizetik itzuli zen hegazkinez, Italiako agintariek adostutakoari Santoñatik jarraipena egiteko. Berarekin bildu ziren, azken aldiz, oraindik Santanderren zeuden Monzon, De la Torre eta Agirre lehendakaria; baita EBBko kideak ziren Luki Artetxe, Ander Arzelus eta Iñaki Unzeta ere. Ajuriagerrak Roattarekin hitzartutakoaren berri eman zien guztiei. Bilkura hori amaituta, negoziatzaile jeltzaleak hara joateko erabilitako hegazkina –*Negus* izenarekin bataiatua– Agirrek, Monzonek eta De la Torrek hartu zuten Santanderretik alde egiteko.

Eta zaputaldia

Gauzak ez ziren nahi bezala atera ordea. Italiako militarrekin adostutakoaren kontra, arratoi-zulo hartatik atera ziren agintarien multzoa ia hutsa-

ren hurrengoa izan zen. Santoñan metatu ziren gudariak eta agintariak erbesteratzeko asmoz Eusko Jaurlaritzak alokatu zituen 14 barkuetatik bi baino ez iritsi ziren portura –*Bobby* eta *Seven Seas Spree*–. Gainera, jendea barkuetara igotzen hasi bazen ere, berehala lehorreratu behar izan ziren, italiarrek emandako kontragindu batera makurturik. Dagoeneko desarmaturik zeuden gudarien barkuratzeko eragozteko, italiar artilleriaren bateriak itsasontzien aurrean jarri zituzte-nean, Santoñako kaietan zeudenak konturatzen hasi ziren hitzarmena betetzea zaila izanen zela. Bigarren zaputaldia berehala etorri zen. Errenditutako soldaduak babesteko hitza ordu gutxi kontua izan zen eta babes hori El Duesoko espetxean eta Laredon –bertan irekitako kontzentrazio zelaian– eman zen; baina okerrean heltzear zegoen. Irailaren 4an, Italiako soldaduen menpe zeuden esparru horietan zaindarien txandakatze harrigarria makinatu zen. CTVko legionarioen orde, soldadu frankistak azaldu ziren bertara. Aski zen hori gatibu zeuden gudariak antzemateko hitzarmenaren maltzurkeria. Italiarren atzetik frankistak zetozen, eta negoziaketa horien jakinaren gainean ere ba omen zeuden espainiarrak gainera. Hilabete eskas beranduago, inolako epaiketarik gabe edo sasi-epaiketen bidez, lehenengo heriotza zigorrak agindu zituzten Santoñako hondartzan. Orduan konturatu ziren faxisten hitzak ez zuela bate-re balio. Beranduegi baina, Manu Egidazu, Francisco Rabanerarentzat, baita Eusko Gudarosteko burua izan zen Ramon Azkue, edo EBBko kidea izan zen Florencio Markiegirentzat, eta ondoren fusilatu zituzten 500dik gora soldaduentzat ere. ■

Irailaren 4an, txandakatze harrigarria makinatu zen. CTVko legionarioen orde, soldadu frankistak azaldu ziren El Duesora eta Laredoko hondartzara



aurrera doan
herria

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

